

noaia

**Legaldi osorako
118 ekimeneko
bide orria, prest**


**Larunbatean
Orfeoi Txikiren
kontzertua
Salbatore Elizan**



Errausketaren aurka, osasunaren alde



Tapa eta aurkibideak prest



Agur esan diogu 2015 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2015eko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezue NOAUA!ko egoitzan.

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, Lizardin edota Lauroken egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24H)

•BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... •ERRAUSKETAK



www.funerariagonzalez.es



aginaga

Sagardotegia



URTE OSOAN ETXEAN EGINDAKO SAGARDOA TXOTXETIK!

Berezitasuna; Sagardotegiko menua
Karta zabala, ikatz parrilan erretako arrainekin.
Familiako ospakizunak, bataio, komunio, enpresa afariak...
Ezkontzetarako jangela egokitua.
Parkina eta umeentzat jolastokia.

Tfno-fax: 943 36 67 10 - Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
info@aginagasagardotegia.com - www.aginagasagardotegia.com

HOTEL BERRIA AGINAGAN

24 gela eroso eta guztiz ekipatuak:
aire girotu eta berogailua, TV, WiFi, bainugela
konpletoa...

Diseinu moderno eta funtzionala

Energia berriztagarritz (geotermia) baliatzen da ur beroa eta klimatizazioa lortzeko.
Lan bidaia, oporraldi eta lasaitasunaz gozatu nahi duenarentzat leku ezinhobea.

Tfno-fax: 943 37 06 68 - Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
info@aginagahotela.com - www.aginagahotela.com

Hotela * *



Albiste iruditan

Sarituak, Tipi-Tapan parte hartzeagatik

Oraingoan bai, bi sarituak agertu dira eta biak batera gainera. Ondoko irudian dituzue otsaileko Tipi-Tapako zozketan zorte ona izan duten bi herritarrak, Txiribogako langilearekin batera. Eskuinetik hasita, Arantza Kamino. Hurbilago Elkarteko establezimenduetan nahierara xahutu ahalko duen 150 euroko erosketa balea irabazi du. Eta ezkerretan, Eneritz Odriozola. Bi lagunentzako afaria tokatu zaio Txiribogan. Zorionak!

Sari gehiago, martxoaren 13an ospatuko den Tipi-Tapa amaierako zozketan. Artzabal, Bordatxo, Txirristra, Aitzaga eta Txiriboga tabernetatik barrena ibilbide gastronomikoa osatu, edaritegiotako zigiluekin Tipi-Tapa txartela bete eta txartela guneotako bateko kaxan utziz gero, zuetako edonor izan liteke hurrengo sarien jabea.



Otsailean egin ziren zozketetan, Eneritz Odriozola eta Arantza Kamino suertatu ziren garaile.

Laburrean

Aste Santu aurreko azken NOAUA! martxoaren 18an

Martxoaren 18an kaleratuko dugu opor aurreko azken NOAUA!. Gero bi astez ez da aldizkaririk izango. Azken astekari horretarako ohar edo zorion agurrik baldin baduzue, erredakzioa@noaua.eus helbidera helarazteko martxoaren 14ra arteko epea izango duzue.

Martxoaren 15ean, Mintzalagunen Topaketa

Mintzalagun egitasmoaren berri izateko aukera aparta izango dugu martxoaren 15ean, 19:00etan Potxoenean. Topaketa Etureta-AEK euskaltegiak, Udalak eta NOAUA! Kultur Elkartek antolatu dugu. Herritar guztiok zaudete hitzordura gonbidatuak.

Osasuna suspertzeko yoga tailerra

Tailerra martxoaren 12an larunbata egingo da, arratsaldeko 17:30etik 19:30era bitartean Bake Epaitegi atzeko lokalean, Einean Guraso Eskolako antolatuta.

Izena emateko: 636 711 514 (Katia Izquierdo) edo kaiztos@yahoo.es

noaua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzalde. 20.170 Usurbil

943 360 321 ||| elkarte@noaua.eus ||| www.noaua.eus

Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatorak:
Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaua.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,
erredakzioa@noaua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
Banaketa: Olatz Rezola, Ekhi Arrieta.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiete, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



Luken Arkarazo

Ez dadila leloan geratu

Gazteria da herri honen etorkizuna betiko leloa, mila aldiz aditua. Baina, zein da gure gizartean gazteriak betetzen duen, edota bete beharko lukeen funtzioa? Argi dago hartzai-learen ideologia politikoaren arabera izango dela erantzuna. Egituraren estoldurak herdoilaz babesten dituen produktua batzuentzat, hura mantetzen duten zutabeen aurkako lurrikararen epizentroa besteentzat. Lehen aukera inertiarena, segurtasunarena, pilula urdinarena da. Bigarrena apurketarena, bakardadearena, ameslariarena, pilula gorriarena. Logikoki ala ez, lehena izan da gehien hautatua izan den norabidea, jorratuena. Zergatik, ordea? Sinpleki azalduta, txiki txikitatik bertara bideratzen gaituztelako, tetriseko piezen antzera moldeaturik, sistemak izango dituen hutsuneak betetzeko. Jaio, ikasi,

lan egin eta bikote bat topatu. Etxe bat erosi, ezkondu eta ondorengotza bermatu! Oro har, prozesu orokor bezain anakroniko horren zurruntasunaren bitartez sistemak, gazte kontzientzia beraren jaitza ekiditeko helburuarekin, geurre buruari zer garen eta nora goazen sekula ez galdetzea bilatzen du. Baita gehienetan lortu ere. Sortutakoarekiko inongo zalantzarik ez duen gazteri izoztua ekoitiz. Paranoikoa dei nazazue baina, kate produkzio baten azken ondorio gara. Ia beti, kaiola erraldoi honetan, kezka eta iritzi kritiko zein dibergenteak ez baitira errentagarri izaten.

Estrategia honen aurrean (utziko didazue panfletismo pixkabat egiten) gazteria bera da, berau lokartzeko trikimailuei aurre egiteko tresnarik baliagarriena. Zeinbait burugorrok halaxe ulertu dugu behintzat, Usurbilen.

Txapa guzti honen ostean,

gurean, azken urteotan gazteriak subjektu politiko bezala izan duen bilakaera definitzeko hitza erraz topa nezake: gora beheratsua. Izan ere, ezkerreko mugimenduek historikoki izan duten jokabidearen antzera, zatikatzeko eta atomizatze joera izan dugu.

Hots, euri dexente egin du, Usurbilek Gazte Asanblada bateratu barik geratu zenetik.

Ziur askok ahantzita duzuela Gaztetxe bat badugunik ere. Beraren okupazioaren ondotik (2012. urtean burutu zen) hasi zen bada, ITAYA gazte asanbladak sortu zuen ilusio olatuaren amiltzea, ondoren asanblada beraren gainbehera ere ekarriko zena. Gertatu zena, motzean azaltzearen, ez genuen jakin izan neurtzen proiektu hark eskatuko zigun irmotasuna. Garai hartan tresna helburu bilakatzearen arriskuaz maiz mintzatu ginen arren, ez genuen lortu Usurbilgo Gazte-

txea herriko gazteontzat erreferentziazko proiektu bilakatzea.

Gauzak honela, ITAYAKo militante sakabanatueta oinarrituko ziren gaur egun herrian lanean ditugun gazte eragile ezberdinak: Gaztetxearen sostengu den asanblada, Ernai ezker abertzaleko gazte antolakundea, eta Matrakak talde feminista. Norbera bere esparruan, tinko. Hala ere, bada herrian hutsune bat, erreferentzialtasunezkoa eta definitu gabekoa, hasi berriarentzat topagune izan beharko lukeena. Gune hori sortu behar den ala ez erabakitzea gure esku dago, gazteon esku.

Guztia, ez ahaztu, barrutik ingurura begiratu eta, ezohiko bideak arakatzeko beldurrak alboratzetik hasten da. Pilula gorria irenstetik. Leloan geratu ez gaitezen.

Aritz Gorriti | Idoia Torregarai | Maialen Unanue | Ilazki Gaintza | Luis Aranalde | **Luken Arkarazo** | Imanol Ubeda

Abian prozesuko lehen herri batzarra

Otsailaren 20an espetxeetara eginiko martxak izan ziren, Ezker Abertzalea murgildua den Abian prozesuko lehen hitzordua. Datozenak, eztabaida prozesuari loturiko hiru herri batzar izango dira. Lehenengo larunbat honetarako deitu dute.

“Abian deituriko eztabaida ariketa egiten ari da Ezker

Abertzalea, nazio askapena eta askapen soziala helburu eraikitako mugimendu iraultzailea”, ohararazi dute.

Abian barne eztabaidari begirako txosten bat landua du Ezker Abertzaleak. Ekarpenak biltzeko aukera izango da orain. “Txosten honen helburu nagusia Zutik Euskal Herria-k ekarri zuen estrategia aldaketak eragindako ziklo politikoan aurrera nola egin behar dugun

zehaztea da. Estrategia gaurkotzeko ariketa da, beraz, baina aldi berean Ezker Abertzalearen nortasuna eta batasuna berrindartzeko balio beharko luke”. Segidan, Usurbilen deitu dituzten herri batzarren egutegia:

Martxoak 5, larunbata

■ 09:30 Batzarra Potxoenean: “Balantze eta testuinguruaren egoeraren eztabaida”.

Martxoak 19, larunbata

■ 09:30 Batzarra Potxoenean: “Definizio estrategiko eta eztabaida eta etorkizuneko garapeneren zehaztapena”.

Apirilak 16, larunbata

■ 09:30 Batzarra Potxoenean: “Txosten erabakitzailearen aurkezpena, eztabaida, bozketa”.

Deitzailea: Usurbilgo Ezker Abertzalea.

“Usurbilgo hondakinak tratatzeko, erraustea egoki iruditzen al zaizu?”

BALIZKO HERRI-KONTSULTAN, GALDERA HORI EGITEA ADOSTU DA UDALBATZAN

Erraustegiaren inguruko herri-kontsulta antolatzeko 1.185 usurbildarrek eginiko eskaerei babesa adierazi zien udalbatzak, otsailaren 23an egin zen osoko ohiko bilkuran. Erraustegiaz herritarrei galdeztearen alde agertu zen EHBildu. Aldiz, EAJ eta PSE udal taldeek galdeketa ez oztopatzeko nahia agertu arren, abstentzioa jo zuten.

Gehiengo osoz onartu da beraz, hurrengo hilabeteotan Usurbilen egin asmo dagoen erraustegiaren inguruko herri-kontsulta, eta baita herritarrei egingo zaien galdera ere. Honela dio hitzez hitz: “Usurbilgo hondakinak tratatzeko, erraustea egoki iruditzen al zaizu?”. Hortxe herritarrek erantzuteko aukera izango duten galdera. Xabier Arregi alkateak azken plenoan zioenez, “herriari hitza emateko ariketa izango da” kontsulta.

Udala: “Kontsultak baldintzak betetzen ditu”

Erraustegia Erabakia herri plataformak eskatutako kontsulta antolatzeko, Udalak “prozesu bat bideratu nahi du, non legeak eskatzen dituen baldin-



Erraustegia Erabakia taldeko hainbat kide bertaratu ziren aurreko asteko plenora.

1.185 SINADURA

Kontsulta antolatzeko, Udalak “prozesu bat bideratu nahi du, non legeak eskatzen dituen baldintzak beteko diren”

tzak beteko diren”. Alkatearen esanetan, baldintza zorrotzekin betetzen ditu galdeketa. Batetik, legediak eskatu bezala, “hondakinen tratamendua bada udalen eskumena”. Bestetik, galderaren esparruak mintzatu zen. Galderak herri izaerakoa behar duela izan. Eta kontsultarako proposatu den galderak oso argi adierazten du, Usurbilgo hondakinei buruz galdetuko zaiela usurbildarrei, galderaren “esparrua gurea da” beraz, zioen Arregik.

Herritarren ikuspuntutik, galderak garrantzia eta edukia izan behar duela ere aipatu zuen alkateak, eta zioenez, garrantzia eta mamia bakarrik ez, herritarren artean ardura eta kezka sortzen duen gaia da erraustegiarena. Horregatik, argi zioen alkateak, azken hilabeteotan Erraustegia Erabakia herri plataformak bildutako 1.185 sinadurek eskaturikoaren aurrean, “Udalari baietz esatea dagokio, galdera onartu eta tramitazioari ekitea”.

Gai hau arautzen duen legedi propio baten faltan, estatuari galdeketa baimentzea eskatu behar dio Udalak. Ia zer dioten Madriletik. Bada aurrekaririk; 2010eko otsaila amaieran hondakinen bilketaren inguruan Usurbilen ospatu zen herri galdeketa historiko hura. Orduko

hartan ere Madrili galdeketa antolatzea eskatu eta baiezkoa jaso zuen Udalak. Berriki, Gipuzkoan ere egin da hondakinen kudeaketari loturiko galdeketa ere.

Abstentzioa arrazoitzeko eskaera

Erraustegia Erabakia herri plataformako ordezkariak batek gertutik jarraitu zuen, galdeketa inguruan udal ordezkariak azken osoko bilkuran adierazi eta erabakitakoa. Hitza hartzeko aukera ere izan zuten, udalbatza aretora gerturatu ziren ordezkariak. Kideetako bat hain zuzen, EAJ eta PSE-ko udal ordezkariengana zuzendu zen, taldeok galdeketa onartzeko proposamenaren aurrean abstenituko zirela iragarri ostean. Abstentzioa arrazoitzeko eskatu zien. Bi taldeetatik, galdeketa ez oztopatzeko asmoa erakutsi zuten.

Aipatu moduan, erraustegiaren inguruko herri kontsulta antolatzeko 1.185 usurbildarrek eginiko eskaeraren alde agertu da EHBildu. EAJ eta PSE abstenitu dira. Martxan da, erraustegiaren inguruko kontsulta antolatzeko tramitazioa.

Auzitara eramango ditu Udalak, GHK-k 2016rako onarturiko tarifak

Udalak auzitara eramango du Gipuzkoako Hondakinen Kontsultazioak (GHK) 2016ko tasak igotzeko hartutako erabakia. Honen arabera, 60.000-70.000 euroko gainkostua eragingo zaio Usurbilgo Udalari. Alkateak bidegabetzat jo zuen egoera eta “usurbildarren eskubideak jokoan” daudela gogoraraziz, auzi errekurtsioa aurkeztuko du Udalak. Horre-

tarako abokatua ere izendatua du.

Kanpoko abokatu baten izendapenarekin, EAJ desados

Izendapen honekin desados agertu zen EAJ-PNV. Gobernu taldeak gai honi buruzko argibideak eman ostean, talde barruan hitz egin ahal izateko etenaldia eskatu zuten osoko bilkuran. Etenaldiaren

ostean, desados agertu zen EAJ, defentsa lanak egiteko Udaleko lan taldetik kanpo dagoen pertsona bat kontratatu nahi delako. Gobernu taldetik erantzun zitzaizen esanez, “modu sakonean lantzeko gaia” dela honakoa, “lan espezifiko bat” eskatzen duela gai honek, eta horregatik hautatu dutela izendatu duten abokatua.

Honez gain, Alaitz Aizpurua zinegotziak, GHK-k 2016rako tarifak onartu zituenetik gaur arte, “ez zaigu ezertan lagundu, ezta informatu ere” zioen.

Azkenean, aurka bozkatu zuten jeltzaleek. PSE-EE-ko udal ordezkaria abstenitu egin zen. Edozein kasutan, EHBilduren babesarekin gehiengo osoz berretsi zuten, aurrez jada dekretu bidez erabakia zegoena.

Joxeba Agirresarobek eta Iñaki Udabek Floxbin taldea berpiztu dute

15 urterekin hasi ziren entseatzen. Floxbin izena ipini zioten taldeari. Baina gero beste proiektu batzuetan murgildu ziren. Urte askoren bueltan, berriro elkartu dira Joxeba Agirresarobe eta Iñaki Udabe, eta gaztetako proiektu hura berpiztu dute. Isilean mimo handiz prestatu duten lana plazaratu berri dute: “Ak!” izeneko diskoa. Martxoaren 19an aurkeztuko dute zuzenean, Txokoaldeko Akerra gaztetxean.

NOAUA! Lehen diskoa plazaratu duzue. Baina elkartzen, lehenago hasiko zineten. Noiztik dago Floxbin taldea martxan?

Iñaki Udabe: Elkarrekin urte pilo bat egin ditugu. 15-16 urterekin hasi ginen biak zerbait egiten, eta Floxbin izena ipini genion, pentsa. Eta duela urte t´erdi edo, “beno, zeoze egin behar diagu” elkarri esan eta lan hau prestatzen hasi ginen.

Joxeba Agirresarobe: Entseatzen hasi beharrean, diskoa prestatzen hasi ginen.

I. U.: Egin eta egin, azkenean 10 abesti osatu ditugu eta aurrera! Ilusio handiarekin aritu gara.

N. Aurretik beste talde batzuetan ibilitakoak zarete.

I. U.: Aiotz taldean hasi ginen. Haritz Harreguy, Pana eta Iker Lopezekin. 13-14 urterekin edo.

J. A.: Hiruzpalau kontzertu egin genituen eta gero bakoitzak bere bidea jarraitu zuen. Aurrena Ikara egin genuen, gero Larrua Truk... Folkoren hasi nintzen laguntzaile gero, eta beste bi urte egin nituen haiekin.

I. U.: Aiotz eta gero Sugoi tal-



Floxbin taldeak “Ak!” diskoa plazaratu berri du. Azal hauxe du.

JOXEBA AGIRRESAROBE

“Iñaki Udabek eta biok grabatu dugu dena. Lasai-lasai aritu gara. Ia urtebete pasa dugu diskoa prestatzen”

dea egin nuen. Sugoin ibili eta gero Larrua Truk-en sartu nintzen Josuren partez, eta hor

berriro elkartu ginen Joxeba eta biok. D3 taldea ere osatu nuen beste bi usurbildarrekin.

Gero beste talde bat egin genuen, Zain. Hor ere elkartu ginen biak. Lau bost kontzertu egin genituen eta akabo. Orain Floxbinekin berriz.

N. Zuen ibilbidearen emaitza al da Ak! diskoa?

I. U.: Ez nuke halakorik esan-

go. Baina hainbeste urteren ondoren, estilo pila bat entzun dugu eta hori dena batu dugu diskoan.

J. A.: Lana egiteko modua ere asko aldatu da.

I. U.: Konposatzeko ere, asko aldatu dira gauzak.

J. A.: Guk grabatu dugu dena. Lasai-lasai. Ia urtebete pasa dugu diskoa prestatzen.

N. Presio gabe aritu zarete orduan.

I. U.: Lasai egiteko gauza zen. Hori oso argi genuen. Eta oso gustura egin dugu. Nahi bezala osatu dugu diskoa.

J. A.: Fetxarrik gabe, eta eperik gabe. Orain Iñigo Roteta hartu dugu baxujole gisa zuzenekoetarako.

N. Beraz, diskoa bion artean egin duzue.

I. U.: Joxeba eta ni elkarlanean hasi ginenean, argi genuen abesti guztiak eta grabazio osoa bion kontura joango zela.

J. A.: Eta halaxe egin dugu. Baina orain zuzenean hirukote gisa funtzionatuko dugu.

“Nahita edo nahi gabe, gure letretan askotan agertzen da gizakia”

NOAUA! Futboleroa, Anima-lia suizida, Milioika amets... Gizarte honetan nagusi diren kontraesanetan jarri duzue begipuntua, ezta?

Iñaki Udabe: ‘Futboleroa’ kantua-
ren letra Iñaki Agirresaro-

berena da. Ironia puntua due-
la esango nuke.

Gainontzean, ‘gizakia’ asko agertzen da gure letretan. Nahita edo nahi gabe, askotan aipatzen dugu gizakia. Kritkarik bada, akolku-

txo batzuk ere...

Natura ere oso kontuan hartu dugu. ‘Animalia suizida’ kantuan diogun moduan, bere amalurra zaintzen ez duen animalia bakarra da gizakia.

‘Milioika amets’ kantuan, gosatea kritikatzeko dugu. Kasu honetan, umeen ikuspegitik. Betiko kontua da, hainbat diru beste gauzetan, eta bien bitartean milioika ume gosez.

“Txoria txori poemaren moldaketa kariño askorekin egin dugu”

NOAUA! Eta bada gutxienik bertso bat ere, ‘Txoria txori’ kantutarena. Lokalean, lanketa berezia eskatu al dizue horrelako moldaketa bat egiteak?

Iñaki Udabe: Artzeren olerkia mundiala da eta kariño askorekin egin dugu.

Joxeba Agirresarobe: Baina ez gara bertsoa egitera joan.

I. U.: Diskoko kantu ezberdine-na da. Lehenik melodia egin genuen, eta ahotsaren metrika definitu genuen gero. Momentu batean konturatu ginen olerkia oso ondo egokitzen zela abestian.

J. A.: Azken kantuekin berdinegin egin dugu. ‘Azkeneko anarkista’ BAPen kantu baten letra da. Letra hori hartu dugu eta beste abesti bat moldatu dugu.

N. Diskoa plazaratu eta berehala duzue lehen zuzenekoak. Martxoaren 19an etxean arituko zarete, Akerra gaztetxean. Aurretik ere arituko zineten bertan. Zer nolako oroitzapenak ekartzen dizkizue Txokoaldeko gaztetxeak?

J. A.: Garai batean Larrua Truk taldekoak han entseatzen genuen.

I. U.: Sugoirekin ere entseatu genuen guk bolada batean. Baina jo, gutxitan jo dut nik han.

J. A.: Larrua Truk eta Folkorekin askotan. Oso egokia da kontzertuetarako. Bizilagunik ez dago inguruan...



Iñaki Udabe baterijolea eta Joxeba Agirresarobe gitarrajolea eta kantaria dira Floxbin taldeko sortzaileak. Zuzenekoetan Iñigo Roteta baxujolea izango dute bidelagun.

IÑAKI UDABE

“Soinu aldetik toki ona da, eta ez da jende asko behar ikusleen berotasuna sentitzeko... Oso argi genuen lehen kontzertua Akerra gaztetxean egingo genuela”

I. U.: Soinu aldetik toki ona da, eta ez da jende asko behar ikusleen berotasuna sentitzeko... Oso argi genuen lehen kontzertua han egingo genuela.

J. A.: Oiartzungo talde batekin arituko gara, Aximila taldearekin.

N. Akerrako emanaldiaz aparte, baduzue beste emanaldirik?

J. A.: Data gehiago ez dugu loturik, baina kontzertu gehiago emateko asmoa dugu.

I. U.: Jotzeko gogo handia dugu orain.

Disko aurkezpena Martxoak 19 larunbata

■ 22:30ean, Akerra Gaztetxean.

■ Floxbin eta Aximila taldeak.

Irratin eta Zendoian jarri dute Ak! diskoa salgai

10 eurotan eskuratu daiteke CDa. Irratin eta Zendoian ipini dute salgai.

“Gure Facebook orrialdean ere, aukera ematen dugu postaz eskatzeko”. Eta horretaz aparte, kontzertuetan ere eskuratu ahal izango da.

Taldearen Bandcamp web orrian ere eskura daiteke diskoa, modu digitalean.



Udalak 2020ra arte berrituko du hitzarmena NOAUA!rekin

Kultura, Euskara eta Gazteria Batzordeak aho batez onartu ostean, otsailaren 23ko osoko bilkurara eraman zuen gobernu taldeak, NOAUA! Kultur Elkarte eta Usurbilgo Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena berritzeko proposamena, duela lau urte sinaturikoa zaharkitua geratu baita, epe bukaerara heldu baita. 2012ko "hitzarmen horren jarraipena da gaur dakarkiguna", zioen Xuban Zubiria udal zinegotziak aurreko asteko osoko bilkuran. Udalbatzak aho bateko babesa eman zion hitzarmena berritzeari.

Euskara eta euskal kultura, ardatz nagusiak


2012an sinatu zen hitzarmena hartu da oinarri gisa, datozen lau urteotako lantzerakoan eta bere helburua, "NOAUA! Kultur Elkartearekin dirulaguntza-erregimena eta prekarioz lagatuko dion lokalaren erabilpena arautzea da". Helburu gehiago ere baditu:

■ Euskararen erabilera zabaldu, Usurbilgo bizitza-esparru guztietan normaldu eta bermatu eta garai berrietara egokitze-ko aberastea.

■ Euskal kultura zaindu eta ezagutzera ematea, iraganeko sustrai kulturalak galtzen ez uztearren eta sortuko den kulturgintza bermatuz.

■ Gaur egungo kulturgintzan jardutea, bertakoa landuz. Kulturgintza unibertsala herriratzeko zubi eta bitarteko izatea.

■ Usurbil ezagutzera emateko



2015eko NOAUA! guztiak batzeko tapa eta aurkibidea eskuragarri dituzue.

bide egokiak taxutzea. Herrikoak munduan barrena bizi diren beste herri eta kulturak ezagutzeko aukerak gihartzea.

■ Aurreko helburuen ildotik, herriaren aurrerabiderako egoki izan litezkeen ekintza, egitura eta jarduera ekonomikoak antolatzea.

Lau urterako laguntza bermatua

Hurrengo urteotan Udalak NOAUA! aldizkarirako, noaueus web orrirako eta hitzartutako publiziterako emango dion diru-laguntza zehaztu da; urteko 54.700 euroko laguntza izango da. Trukean, NOAUA! aldizkarian orrialde osoko lau publizitate jarriko ditu Udalak urtero, Santixabel jaiei, Sagar-do Egunari, emakumeei eta ingurumenari loturikoak. Honez gain, "NOAUA! Kultur Elkarteak, herriari zuzendutako ekintza guztietan Udalaren laguntza eta babesa jasotzen duela adieraziko du".

NOAUA! Kultur Elkartearen batzarra

NOAUA!kideontzako oharra. Bazkideen urteko batzar nagusirako hitzordua finkatu dugu jada; martxoaren 14an izango dugu, iluntzeko 18:30ean hasita Potxoenean. Bazkide guztiok zaudete gonbidatuak, 2015eko balantzearen eta aurrera begirako egitasmoen inguruan jardungo dugun saiora.

2015eko astekariak biltzeko garaia

Iaz argitaratu genituen 599-640 zenbaki arteko NOAUA! guztiak koadernatzeko aukera duzue. Tapak eta aurkibideak prest ditugu. NOAUA!ko bazkideok doan eskuratu ahalgo dituzue. Gainerakoek tapak 3 eurotan eta aurkibidea 1,20 euroren truke. Koadernatzea Laurok edo Lizardi liburu dendan egin dezakezue. Lanongatik bai, bazkide direnek eta ez direnek berdindin ordaindu beharko dute.



Joseba Larratxeren Lauki erakusketa

Artzabalen

Martxoaren 8tik apirilaren 1era ikus ahalgo duzue. "Lauki erakusketak azken hiru urteetako marrazki esanguratsuenak biltzen ditu, gehienak Argiarako egindako azaleko irudiak eta ilustrazioak. Komiketako biñetak balira bezala, lanak formatu karratuan aurkezten dira".

Ikastaroa gaztetxoentzat

Martxoaren 3tik maiatzaren 26ra, komikigintzan trebatzeko ikastaroa eskainiko die Larratxek Potxoenean. Oste-gunetan, 17:00-18:30 artean. Ikastaroan izen emateko gerturatu Sutegi udal liburutegi-ko sarrerako mahaira.

Badator Laburbira

Euskarazko film laburren zirkuituak Euskal Herriko 27 udalerriri eta diasporako hainbat txoko zeharkatuko ditu asteotan. NOAUA! Kultur Elkartearen eskutik martxoaren 13an helduko da Laburbira Usurbila. Iluntzeko 19:00etan hasiko da Sutegin.



Martxoaren 13an, 19:00etan Sutegin.

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

ALDAMU

KONPONKETAK

KALE NAGUSIA 10- atzekoaldea
943 372 795

ETXETRESNEN KONPONKETAK

Moduz, azkar eta prezio onean
MARKA GUZTIAK

645417665
XABIER
Usurbil

URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64

urdaintzi@euskalnet.net

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Orfeoi Txiki Abesbatzaz gozatzeko aukera

Xabier Lizasoren *Izaba Tekla* ikuskizunarekin hasi zen Soinurbil Astea. Igandera bitarte, musikaz gozatzeko aukera ugari izango dugu. New Orleanseko doinuak, Orfeoi Txikiren saioa, Lezoko Musika Bandaren bisita... Oparoa da astebururako prestatu duten agenda.

Martxoak 4, ostirala

■ 20:00 EuskOrleans Taldearen emanaldia kalean.

■ Zehaztasunak: “Euskal kantak, New Orleanseko 20. eta 30. hamarkadetako musikara moldatzen dituen jazz taldea da EuskOrleans Dixie Band”.



Orfeoi Txiki Abesbatza larunbatean arituko da, arratsaldeko 17:00etatik aurrera Salvatore Elizan.

Martxoak 5, larunbata

■ 17:00 Orfeoi Txiki Abesbatza Salvatore Elizan.

■ Zehaztasunak: “Orfeoi Txikia 1988an sortu zen,

Antxon Ayestaranez izandako ideiarekin eta hark berak emandako bultzadaren ondoren”.

Martxoak 6, igandea

■ Lezoko Musika Banda, txistulari taldea eta Usurbilgo txistularien eskutik: 11:30ean Kalejira.

12:30ean Emanaldia frontoian.

Usurbilgo eta Lezoko txistulariak Kalejiran eta Kontzertuko bigarren zatian parte hartuko dute”.

NOAUA! KULTUR ELKARTEKO BAZKIDEEN BATZAR NAGUSIA

MARTXOAK 14, ASTELEHENA - POTXOENEAN

1. deialdia 18.30etan / 2. deialdia 19.00etan

GAI-ZERREDA:

- 1) 2015eko memoria eta balantze ekonomikoa
- 2) 2016ko egitasmoak eta aurrekontuak
- 3) Zuzendaritza Batzordearen osaketa eta onarpena
- 4) Galdera erantzunak

Genero indarkeriaren eta sexu erasoen biktimetzako arreta hobetzeko protokoloa

ESKUALDEAN, HALAKO EKIMENA ABIATZEN DUEN LEHEN UDALERRIA DA USURBIL

Genero indarkeriaren eta sexu erasoen biktima diren emakumeei arreta hobea emateko, erakundeen arteko jarduerarako eta koordinaziorako I. Udal Protokoloa onartu zuen udalbatzak aho batez, otsailaren 23ko osoko ohiko bilkuran.

Halako egitasmo bat abiatzen duen lehen udalerrria dugu Usurbil eskualdean, Josune Estella parekidetasun alorreko udal zinegotziak berri eman zuenez. Onartu den dokumentuak irekita segitzen du halere, oraindik beraz, ekarpen berriak jasotzeko aukera bada.

Protokoloaren lanketa 2011. urtean abiatu zuen Udalak kontrataturiko Sortzen enpresak. Ordutik bide hau jorratu du gaiak, gaur arte:

■ 2011: Genero indarkeriaren prebentziorako eta indarkeria mota hau jasan duten emakumei laguntza eskaintzeko udal politiken diagnosis egin zen.

-Gero, arreta zerbitzuan parte



Lehen Udal Protokoloa onartu zuen udalbatzak aho batez, otsailaren 23ko osoko ohiko bilkuran.

hartzen duten udaltzain, gizar-te edota osasun langileekin formazioa landu zuten.

-Segidan, eragileen parte hartzearekin protokoloa definitzeari ekin zioten.

■ 2012: protokoloaren azken bertsioa esku artean zuen Udalak. Protokoloan parte hartzen duten erakundeei helarazten die zirriborroa, azter dezaten. Ekarpn jakotzen dira. Ertzaintzako arduradunek euska-

raz ez zekitela eta, dokumentua erdarara itzultzea eskatzen dute.

■ 2014: Ertzaintzak bere ekarpenak egin eta dokumentua osatzen da.

■ 2016: otsailaren 18an Parekidetasun eta Aniztasun Batzordeak aho bateko babesa eman ostean, otsailaren 23ko osoko bilkuran aurkeztu eta aho batez onartzen dute udal ordezkariak, protokolo berri hau.

Martxoaren 8ko egitaraua

Martxoak 3, osteguna

■ 20:30 Bertso-afaria Artzabalalen, Eli Pagola, Oihana Iguaran eta Onintza Enbeita bertsolariekin. Gai jartzailea: Idoia Torregarai. Afaritarako txartelak Artzabalalen salgai. Prezioa: 15 euro + euro bat (zozketa erotikorako).

Martxoak 4, ostirala

■ 19:00 "Zinegoak" zinema jaialdiaren baitako laburmetraien proiektzioa Sutegin.

Martxoak 6, igandea

■ 10:00 27. Lilatoia Donostian, Bulebarretik abiatuta.

Martxoak 8, asteartea

■ 19:00 Elkarretaratzea Mikel Laboa plazan (Eguraldi txarra egingo balu, frontoian).

Antolatzaileak: Matrakak, Usurbilgo Talde Feminista eta Usurbilgo Udala.

Martxoaren 8rako udal adierazpena: "Usurbilen ere bada zer eginik"

Udalbatzak aho batez onartu zuen Emakumeen Egunari begira EHBilduk aurkezturiko erakunde adierazpena, otsailaren 23an egin zen osoko ohiko bilkuran, "Usurbil udalerrian ere badelako zer eginik". Hainbat konpromiso hartu zituen udalbatzak, testu honen bidez. Lehenik eta behin, Matrakak Usurbilgo Talde Feministak eta Udalak Martxoaren 8aren buel-

tan antolatu dituzten ekimenekin bat egiten du testuak.

Zenbait konpromiso ere hartzen dira; berdintasun sailera Udalak bideratzen duen babes eta laguntza mantentzea; Emakume eta Gizonen berdintasunerako Ordenantza eta biolentzia matxistaren kontrako protokoloa lantzeko Matrakekin elkarlanean segitzea; udal idatzietan hizkuntza ez sexista

eta inklusiboa erabiltzea eta diru-laguntzetan genero klausulak ezartzea; edota herriko jai eta ospakizunetan parte hartze parekidea sustatzea.

Berdintasun erreala lortzeko egunerokoa eta guztion lana ezinbestekoa dela dio adierazpenak, "erakundeetan eta jendarteetan, lana eta enplegua baldintza duinetan banatua izan dadin, zaintza lanak par-

tekatuak izan daitezten, afektibitatea eta sexualitatea modu anitzean, libreki eta seguru bizi ahal izan dadin, estereotipoak zein rolak gaindituak izan daitezten, eraso sexual eta sexistak desagertu daitezten, prekaritateak eta pobrezia emakume izena eduki ez dezaten, erabakiguneetan aritzeko aukera berak sor daitezten, besteren artean".

Jokoan bezala, ikusgarritasunean irabazteko lehia

Orain arteko neurketa guztiak irabazi ondoren, Gipuzkoako txapeldu-nak ditugu Usurbil Kirol Elkar-terko senior nesken taldekoak. Euskadiko txapelketa irabazi eta Espainiako igoera fasea jokatze-ko lehia betean dira orain. Jokalari kopuru mugatuarekin, garaipen mordo eskuratu dute azken denboraldiotan. Baina emakumez osaturiko kirol talde askok diotena berresten dute eurrek ere; aurrerapausoak ematen ari garen arren, haien jardunak ikusezina izaten segitzen duela, lerrootan adierazi digutenez.

Denboraldiko bigarren zatiari emaitza oso onekin ekin diozue?

Senior neskak: Oraingo 18 partida jokatu ditugu, denak irabazi ditugu. Oso talde gutxi daude une honetan halako emaitze-kin, bai Euskal Herri mailan, Gipuzkoan, eta Usurbilen talde bakarra izango gara. Ematen du erraz egin dugula, baina horrek alde aurreko lan handia eskatzen du.

Are gehiago, jokalari kopuru mugatua izanda.

Jendea lesionatu zaigu eta kopuru aldetik urtero moduan, mugatuta gaude. Beste urteetan ere hala egon gara, ez da egoera berria guretzat. Jokalari gutxirekin entrenatzera ohituta gaude.



Senior taldeak 18 partida jokatu ditu eta denetan garaile izan da.

SENIOR TALDEA

“Duela bi urte igoera faserako sailkatu eta igo ginenean, jendeak bakarrik mutilak igo zirela zekien, ez zekiten neskak igo zirenik. Ikusezintasun hori bai bizi dugula. Horri ere aurre egin nahi diogu”

Partida guztiak irabazi ostean, orain neurketa zailagoak datoz. Gogotsu gaude ia zer datorren, talde berriak izango ditugu. Ilusioz gaude, hori ez da falta.

Orain ze fasetan zaudete?

Gipuzkoan txapeldun amaitu dugu eta orain Euskadiko txapelketa jokatzen gabiltza.

Hortik lau onenak joango dira Euskadiko finalera eta hortik bi onenak, Espainiako igoera fasea jokatzeko sailkatuko dira. Aurreko bi urteetan igoera fase honetara iritsi gara, eta aurten ere, zorte pixka batekin iristea espero dugu, lesio gehiago izan gabe.

Jokalari berriak izatea eskertuko zenukete beraz.

Elkarrizketa hau baliatu nahi genuke, hasteko, ia gradetara zaletuak erakartzea lortzen dugun. Gure taldeko jokalaria izan daitezkeenak ere bai, taldeko jokalari izateko. Jokalari kopuru aldetik beti gaude mugatuta, beti nahi dugu beste norbait gehiago apuntatzea. Eskatzen duguna da giro onerako jarrera izatea. Kantxan dena

ematea, denok gustuko dugun moduan. Ongi etorria izango da edozein. Tristeza litzateke ematen ari garen mailarekin taldea desegitea. Animatu!

Harrobitik badatoz jokalariaik?

Orain arte partida batean edo bitan, igo dira jubenilak. Egia esan, oso ondo etorri zaigu. Gerora begira, kontaktua izatea garrantzitsua da, laguntza paregabea dira. Baina aurten, harrobitik hiru jokalari etorri zaizkigu baina beste hiruk taldea utzi dute. Azkenean jokalari kopuru berean geratu gara. Klubean talde desberdinekin laguntzen digute eta hori ere garrantzitsua iruditzen zaigu. Baina hurrengo urteetan gustatuko litzazuke jendea entrenatzen hastea.

Zaletuak ere eskertuko zenituzkete?

Kukullagaren aurkako neurketan, zazpi bakarrik ginen jokatzen eta halere, une zail horiei ere aurre egiten jakin dugu, gure indarrarekin. Hara joateko autobusa jarri ziguten. Jendea beste taldeak ikustera joaten den moduan, 3 lagun etorri ziren gu ikustera. Ohituta gaude hala jolastera. Gipuzkoako txapeldun geratu gara, baina herrian ez da transmititu. Herriak ez daki aurten ere ondo goazenik.

“Badira garaipenik izan dugunik onartzen ez dutenak”

NOAUA! Bide luzea da hau?

Senior taldea. Maratoi bat da. NOAUA!n ateratzen bagara eta neskotaz zerbait esaten bada, badira garaipenik izan dugunik onartzen ez dutenak. Baina guk gure lana egiten dugu eta horregatik lortu ditugu emaitzak.

N. Ikusezintasunaz gain, zuen lana ez da behar bezala baloratzen?

Badirudi ez dela gorai patu behar. Baina bai. Dugun maila izateko borrokatzen dugu. Gainera

oso maila altua ematen dugu eta baldintza zailetan. Hemen denok ikasketak ditugu, lanean ari gara eta ez gara geratzen etxean jolastu gabe. Aukera dugu ikasi, lan egin eta aldi berean gainera, kirola egiten jarraitzeko.

N. Taldeak azken urteotan izan duen ibilbideak errealitate hau aldatzen lagundu du?

Denborarekin ari da egoera aldatzen. Herritar batzuen babes badugu eta hori egia esan altxor bat da. Egia da, lehen igoera fa-

searen harira, jendea hasi zen esaten bazela gauzak ondo egiten ari zen nesken taldea. Egia da partida askoren ordutegiak ez direla onenak jendea etortzeko, baina halere bada jendea taldea ikustera datorrena eta egia da badela jendea gehiago arduratzen dena taldeaz. Partida noiz den jakin eta jendea mugitzen da partida ikustera. Pixkanaka aurrerantz goaz.

N. Zer aurreikuspen duzue denboraldi amaierarako?

Lesionatuak errekuperatzea. Fasez pasatzen bagara ia denok dugun une hori bizitzeko aukera. Oraingo dugun helburua Espainiako faserara iristea da. Euskadiko txapelketa irabazteko aukera bada. Euskadiko Txapelketako finaleko fasea, apirilean izango da. Espainiako igoera fasea, Sagardo Egunaren aurreko asteburuan. Gustatuko litzazuke, hemen izatea eta gradaren bultzada eta indar guztia izatea baita ere. Usurbil dudipe!

Abiatu da 'Sagarrondotik Sagardora' ikastaroa

Sagarrondotik Sagardora zikloa abiatu zen aurreko astean. Alkartasuna Kooperatibak antolatu duen ikastaroa iraila arte luzatuko da baina oraindik bada izena emateko aukera. Baita saio solteetara joateko modua ere, nahi izatera. Hauek dira hurrengo hitzorduak:

- Martxoak 5 larunbata: "Zuhaitzen udaberriko edo zotzeko txertaketa". Josu Osaren esku-tik.
- Martxoak 12 larunbata: "Sagastien neguko kimaketa, gaixotasunak eta tratamenduak". Aitor Etxeandia.
- Martxoak 19 larunbata: "Garbitasuna sagardoaren kalitatea- ren lagun". Egoitz Zapiain.
- Apirilak 30 larunbata: "Lan- daren bizimodua. Ilargiaren eragina". Xabier Akizu eta Jakoba Errekondo.
- Ekainak 4 larunbata: "Sagas-



Sagastien neguko kimaketa eta ongarriketaz aritu ziren aurreko larunbatean, Aitor Etxeandiaren esanetara.

- Uztailak 9 larunbata: "Zuhaitzen udako edo begiko txertaketa". Josu Osa.
- Irailak 10 larunbata: "Sagarraren heldutasun analisiak, eta etxean sagardoa egiteko hastapenak". Aitor Etxeandia eta Egoitz Zapiain.

Saio guztien hitzordua:

- Potxoenean, 9:00-13:00.
- Oharra: kimaketa praktikak bertako sagastietan egingo

dira.

Prezioa:

- Ikastaro osoaren prezioa: 96 euro, Alkartasuna Kooperatibako bazkideek doan. Saio solteetan izen emateko aukera ere badago.

Informazio gehiagorako eta izen emateko:


- 943 361 114
- alkartasuna@usurbil.com
- alkartasuna.eus
- Antolatzailea: Alkartasuna Kooperatiba.

Etorkizuneko manufakturari buruzko mintegia Lanbide Eskolan

CIFP Usurbil Ecosistema I3D proiektuaren barruan, inguruko hamabi enpresei etorkizuneko manufaktura eta 3.0. ekoizpenaren inguruko mintegi bat emango zaie, teknologia berri honek diseinuan, logistikan, salmenta-ondoko zerbitzutan eta abar luze batean eskaintzen dituen aukerak ezagutu ditzaten.

Martxoak 3 osteguna

Ostegun honetan, martxoak 3, Usurbilgo Lanbide Eskolan, Tumaker eta Arbonies & Asociados enpresetako adituen laguntzaz.



Inguruko 12 enpresa batuko dira mintegi honetan.

EH-ko gazte mugimenduaren asanblada

Udazkenean alternatiben inguruko topaketak antolatzeko asanblada deitu dute gazte mugimenduko espresio ezberdinetan dabilzan gazteek, larunbaterako, martxoak 5, Udarregi Ikastolan. Bilera irekia izango da. Ekarpenak bildu nahi dituzte:

Martxoak 5, larunbata

- 09:30-10:00 Sarrera: ongi etorria, gosaria eta taldeetan apuntatzea.
- 10:00-11:30 Alternatibak: komunean eta ildoka, bakoitzak alternatibaren eztabaida egitea:
- *Gure Kabuz ala Hil* dokumentalaren ondorio aurkezpena.



Larunbat honetan egingo da topaketa. Besteak beste, "Gure kabuz ala hil" dokumentala izango dute hizpide.

- Lantaldeka, eztabaidak eta ekarpen bilketa.
- 11:40-13:10 Eremuka banatu: alternatiben gaineko diskurtsoak osatu; eremuan egindako gogoetak konpartitu eta aurre-
- ra begirako urratsak adostu.
- 14:00-15:00 Bazkari "express".
- 15:00-16:30 Topaketen aurkezpena: proposamena plenarioan aurkeztu eta goizeko lan taldeetan eztabaidatu.

"Zure enpresa nola sortu eta kudeatu" ikastaroa

Martxoaren 15 eta 16an, Andoaingo Urigain Etxeko areto nagusian. Bi ordutegi aukeran; goizez, 09:00-13:00 artean, eta arratsaldean, 15:00-19:00 artean. Eskualdeko udalek, Usurbilgoak tartean Lanbiderekin elkarlanean antolatu duen doako ikastaroan izen emateko epea zabalik dute interesdunek.

Informazioa, izen-ematea

- Inskripzioak eta informazio gehiago jasotzeko: 943 304 221 (Nerea Yurrebaso)
- ekinean@andoain.eus
- Lanbideren bulegoetan

118 ekimeneko bide orria

Sei multzo handietan sailkatutako 118 ekimen gauzatu nahi ditu Usurbilgo Udaleko gobernu taldeak datozen lau urteotan, orain hasi eta 2020. urtera arte. Egitasmo guztiok eskuorri batean bildu dituzte. Eskuorria, otsailaren 25ean Sutegiko auditoriora gerturatu zirenek eskuratu ahal izan zuten, hurrengo lau urteotarako gobernu programa aurkezteko antolatzen ekitaldian.

“Etorkizunari begirako iparra” markatu nahi du gobernu taldeak landu duen programa honekin. Iragarritako 118 ekimenak, ez dira egitasmo isolatuak, Sutegiko aurkezpenean nabarmendu nahi izan zuten. Elkarren osagarriak baizik. Datozen lau urteotan garatu nahi den herri proiektu bat islatu nahi izan dute bide orri berri honekin.

Gizarteratu duten gida modukoa, joan den maiatzeko udal hauteskundeetarako aurkezturiko programarekin, abenduan herri eragileekin eginitako bilera errondan jasotako ekarpenekin, eta udal gobernuak hilabeteotan aztertutako



Legealdi osorako udal programaren berri eman zuten Sutegin. Era honetan, “etorkizunari begirako iparra” markatu nahi du Xabier Arregi zuzentzen duen udal gobernuak.

JARRAIPIEN BATZORDEA

“Gobernu programaren garapena gertutik segitu eta baloratzeko, hurrengo urrats eta planifikazioak zehazteko, Jarraipen Batzordea osatuko du gobernu taldeak”

gaiekin osatu dute. Auzoak eta adin guztietako herritarrak eduki nahi izan dituzte kontu-

tan. Bizikidetzaz, parekidetasun, jasangarritasun eta inklusibitate irizpideak aintzakotzat hartuta diseinatu dute.

“Ez da zerrenda itxia”

Ezagutzera eman dutena, ez da egitasmoen zerrenda itxi bat, 2020ra arte gobernu taldeak dituen aurreikuspenak baizik. Hurrengo 4 urteotan, “bidean sortuko dira beste batzuk” Xabier Arregi alkateak Sutegiko aurkezpenean

zioenez. Programa dinamikoa izatea nahi dute. Horretarako, programaren garapena gertutik segitu eta baloratzeko, hurrengo urrats eta planifikazioak zehazteko, Jarraipen Batzordea osatuko du gobernu taldeak.

Gardentasunez eta elkarlanean arituta gauzatu nahi dituzte egitasmo guztiok. Horretarako, eskura dituen baliabide guztiak jarriko ditu gobernu taldeak. Baina ez da aski izango.

Herritar eta eragileen inplikazioa, ezinbestekoa

Aurreko asteko ekitaldira bertaraturikoen artean ziren, egungo eta udal ordezkari ohiak, herri eragile ezberdinetako kideak edota herritarrak. Guztiok, norbanako, eragile eta erakundeekin elkarlanean aritzeko beharra izango dela nabarmendu du gobernu taldeak.

Bide hau, “ezin du Udalak bakarrik egin”. Herriko nahiz kanpoko eragile guztiekin lan egiteko prestutasuna agertu zuten gobernu taldeak.

Harreman horiek lantzen hasi nahi dute, baina horrek noski, alkateak zioenez, “herritar eta eragileen inplikazioa eskatzen du, ezinbestekoa da”. Atzo eta gaur gobernuan nahiz oposizioan egon diren eta dauken udal taldeei egindako lanagatik eskertu eta denak, udal ordezkari, eragile eta herritarrak, “zuek bidelagun izatea nahi genuke”, adierazi zien Xabier Arregi EHBilduko alkateak.

Sei lan ildo

118 ekimen, “jendartearen oi-

nari hartuta” antolatutako 6 multzoetan banatuta. Honatx 2020. urtera arte gobernu taldeak landu nahi duten ildo nagusiak. Asteotan zehazten joango gara zeintzuk diren gobernu taldeak iragarri dituen 118 ekimenak:

■ **Herria:** “gure espazioen erabileraren arautzeari eta baliabide naturalen babesari dagokiona”.

■ **Ongizatea:** “usurbildar guztion ongizatea bermatzeari dagokiona”.

■ **Nortasuna:** “Usurbilgo herri-

tarren balore eta ezaugarriei dagokiona”.

■ **Usurbildarrak:** “Adin eta gizarte ezaugarrien araberako politikei dagokiena”.

■ **Udal funtzionamendua eta herritarrekiko harremana:** “Udalak herritarrei eskaini beharreko zerbitzua hobetzeko hartuko dituen neurriei dagokiena”.

■ **Etorkizuna:** “Etorkizuneko Usurbilgo herriaren eta herritarren oinarria gaur gaurkoz lantzen hasteko urratsei dagokiena”.

3.000 lagun errausketaren aurka

Jendetsua eta anitza. As-tebururako iragarria zegoen eguraldi txarra edota bidean zegoen lokatza ez zen oztopo izan, Errausketaren Aurkako Mugimenduak igandean Letabidera antolaturiko martxa arrakastatsura eta gero Zubietan antolaturiko ekitaldira gutxienez 2.000 lagun erakartzeko.

Azkenean, aurreikusi bezala, Zizurkil, Andoain, Lasarte, Hernani eta Añorga Txikitik herritar zutabe bana abiatu zen errausketaren zero punturantz. Zutabe hauei batu zitzaizkien, nola ez, Zubietan eta Usurbildik abiatutakoak. Ezinhobeto erantzun zuten usurbildarrek. Dema plazatik abiatu zen ehunka herritar, taldeko argazki jendetsua ateratzen. Goian, errausketaren zero puntu bat ziren, gainerako herrietatik abiatutako zutabeekin. Erraustegiaren kokagunea inguratu zuten mila lagunek gutxienez, goitik behera lokatza zegoen bidea igo ostean. Lokatz mordera zegoen bai, baina era berean ez zen lokatz nahikorik igandean, zero puntura igo eta errausketaren aurka, eta osasunaren alde mobilizatu nahi zutenentzat.



Igande eguerdian, lagun ugari batu ziren "zero gunean".

ESTITXU EIZAGIRRE

"Erraustegiaren mamuak ez digu beldurrik ematen. Begietara begiratzen diogu erraustegiari eta irribarrez esaten diogu: ez duzu tokirik gure bizitzetan. Ez zaitugu behar"

Proiektu erraldoien "zero puntua"

Erraustegia eraiki asmo duten inguruetara bertaratu zirenekin, ez zuten panorama oso atsegina begi bistan; bi alboetara, mendiari eginitako zulo handi bana ikus zitekeen. He-

rritar askoren iritzia kontuan izan gabe, inork etxe ondoan nahi ez dituen proiektuak mendi tartean ezkutatzeko egin dituzten bi zulo handi hain zuzen; Zubietan gainera kokatu asmo baitute erraustegia, baina baita industriagune bat, makrokartzela, etxebizitza sorta bat... Momentuz ez dago ezer eraikia, baina proiektuon "kabiak" duen dimentsioa izugarri handia da.

Zulo handion artean, ehunka ahotz batu ziren igande eguerdian; kasu honetan, aurreikusia dagoen proiektuetako bati, erraustegia behingoz bertan behera uztea eskatzeko.

"Ez zaitugu behar"

Zero gunetik behera Zubietan jaitsi ziren gero herritar zutabe guztiak, eta han jende gehiago batu zitzairen. 2.000 bat lagun guztira. Ikusgarria izan zen, "errausketarik ez" zioen pankarta handi baten bueltan errebote plazan bildu zirenean. Entzungor segitzen duten proiektu honen sustatzailei zuzenduriko mezua argi eta ozena helarazi nahi izan zitzairen Zubietako bihotzetik.

Lehenago, frontoian egindako ekitaldian, erraustegia gera dezakegula gogorarazi ziguten, Ane Labaka eta Asier Azpiroz bertsolariak. Zubietarrak abestuz zioenez, "erraustegia gera liteke, ez dakit ondo dakigun. Aire garbiak biratu gaitzan, garbi oihuka dezagun. Erraustegirik ez dugula nahi, ez hemen eta ez inun".

Ez baitugu behar, ekitaldi berean, Errausketaren Aurkako Mugimenduaren izenean, Estitxu Eizagirre kazetariak irakurri zuen adierazpenak zioenez. "Jada erraustegiaren mamuak ez digu beldurrik ematen. Begietara begiratzen diogu erraustegiari eta irribarrez esaten diogu: ez duzu tokirik gure bizitzetan. Ez zaitugu behar".

Alternatiba merkeago eta jasangarriagoen alde

"Eguneroko ekintza txiki batekin lantzen ari garena", erraustegiarena baino askoz bide emankorragoa dela gaineratu eta bide horretan sakontzeko nahia adierazi zuen Errausketaren Aurkako Mugimenduak, Zubietako martxa amaieran egin zen ekitaldian.

"Ez hemen, ez inon"

Alternatibak praktikara eramaten ari garen honetan, hain ezaguna egin den aldarri esanguratsurekin borobil-

du zuen adierazpena Estitxu Eizagirrek: "Burua duenak ez du erraustegirik nahi bere herrian, eta bihotza duenak ez du nahi beste inoren herrian". Txalo zaparrada batekin erantzun zuten frontoira bertaraturiko ehunka lagunek.

Finantzatzaren aurka

Horri, proiektu honek eragingo duen eta gipuzkoarren poltsikotik ordaindu beharko dugun 300 milioi euroko gastua erantsi behar zaio. Horre-

gatik guztiagatik, erraustegia bertan behera uztea eskatu zuten Zubietan, osasunarentzako eta ingurumenerako kaltegarria delako, garestia eta beharrezkoa ez dena gainera.

Udal, Mankomunitate eta eragileei, herritarrentzako gastu ekonomiko itzela eta osasun arazoak baino eragingo ez dizkien proiektu hau ez finantzatzeko eta alternatiba merkeago eta jasangarriagoak martxan jartzeko deia luzatu zaie.

Bi hitzordu

Errausketaren aurkako martxa amaitu da. Baina adi, ekimen gehiago deitu baitira datozen hilabeteotarako. Besteak beste, martxoaren 12an, Andoainen. Errausketaren aurkako manifestazioa egingo da bertan.

Maiatzaren 29a agendan ondo baino hobeto gordetzeko eguna izango dela ere iragarri zuten igandeko ekitaldian, "izan ere, egun horri begira ekitaldi eder bat prestatzeko asmoa du Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak".

eta osasunaren aldeko martxan



Igandeko martxaren argazki gehiago, adierazpenak eta bideo-irudiak www.noaua.eus web orrian topatuko dituzue.

Gaztelekukoak, Bera Bera animatzen



Aurreko larunbatean Bera Bera eta Granollers taldeen arteko partida ikusten izan ziren Gaztelekuko kideak. Ondoren, Bera Bera taldekoekin argazki hau atera zuten. Argazkia: Juan Antonio.

Granollersen aurka Bera Bera eskubaloi taldeak larunbatean jokaturiko partida animatzen izan ziren Gaztelekuko DBH1 taldekoak. Ondoko irudian dituzue gazteak, Bera Bera taldeko jokalariekin batera atera zuten argazkian.

Aste Santuan martxan izango dira Aginagako Txokoak

Aginagako Eskola Txikiko Guraso Elkarteak, Usurbilgo Udalarekin elkarlanean datozen oporretarako antolatutuzten txokoetan izen emateko epea zabalik egongo da, martxoaren 11ra arte:

- Txokoetako egunak: martxoak 21, 22, 23, 29, 30, 31 eta apirilak 1.
- Orduetgia: 09:00-13:00 edo 10:00-13:00.
- Tokia: Aginagako ludoteka.
- Izen ematea: martxoaren 11 baino lehen, aginaga@eskola-txikiak.org helbidean.
- Antolatzaileak: Aginagako Eskola Txikiko Guraso Elkarte eta Usurbilgo Udala.

BAZKIDEEN TXOKOA



martxoaren 4an ZOZKETATUKO DUGU:

AGINAGA
SAGARDOTEGIAN

2 LAGUNENTZAKO
afari edo bazkaria

NOAUAREKIN
TXOTXI!

noaua! euskararen aterpe

Astelehenean hasiko da Jubilatut Astea

Kezka eragiten duten gai sozialen inguruko hitzaldiekin, edota aisaldi eremuko ekimenekin, ibilaldi edota bazkaria tartean, osatu du Gure Pakea Elkarteak abiatzear duen Jubilatut Astea. Aurtengoa, martxoaren 7tik 13ra luzatuko da:

Martxoak 7, astelehena

■ 17:00-18:00 Hitzaldia Artzabalgo ekitaldi aretoan: "Ictus: prebentzioa, detekzioa, jokabidea eta ondorioak".

■ Hizlaria: DYako sendagile bat.

■ Sarrera: doan.

■ Argibide gehiagorako: 943 46 46 22 edo dyagipuzkoa.com

Martxoak 8, asteartea

■ 17:00 Joxe Mari Soroa, bere gitarra lagun duela, kantu eta txiste saioa Artzabalgo ekitaldi aretoan.

■ Saioa euskaraz eta gaztelaniaz.

Martxoak 9, asteazkena

■ 17:00 Etxeetako igogailuei



Otsaila erdialdera ospatu zituzten Gure Pakea Elkarteak bazkideen arteko txapelketak; musean, tutean, puntuan, igel jokoan eta tokan lehiatu ziren. Iruditan dituzue txapeldunak eta txapeldun ordeak.

buruzko hitzaldia, Artzabalgo ekitaldi aretoan.

■ Hizlariak: Udaleko bi aditu.

Martxoak 10, osteguna

■ Iraeta-Azpeitia ibilaldia:

■ Abiatzeko hitzordua:

08:00etan, tren geltokian.

■ Ibilbidea: Iraeta-Azpeitia, 11 km bidegorrian zehar (erraza).

■ Prezioa: 20 euro, gosaria eta bazkaria barne.

■ Izen ematea: martxoaren 3a, azken eguna.

Martxoak 13, igandea

■ 12:00 Meza Salbatore elizan.

■ 14:00 Bazkaria Atxega Jaurregian.

■ Prezioa: 23 euro. Izen emateko azken eguna: martxoaren 3a.

■ Oharra: Iraeta-Azpeitia ibilaldirako eta martxoaren 13ko bazkarirako izen ematea martxoaren 3ra arte, Gure Pakea Elkarteak Artzabalren duen bulegoan.

■ Antolatzailea: Gure Pakea Elkarteak.

Giro hotz eta bustia kantuz gozatzen

Larunbatean kalean ibiltzeko eguraldi onena ez genuen arren, fin asko hileroko hitzorduari hutsik egin gabe ateraziren abestera Kantu Taldekoak. Aterpez aterpe ibili behar izan zuten, giro busti eta hotza kantuz gozatzen. Ohi bezala iluntzean izan ordez, eguerdi partean oraingoan. Gero, Aginagako Urdaira Sagardotegira bazkaritara joan ziren, han ere kantuan segitzeko.



Kalejiran ibili ondoren, Urdaira sagardotegira joan ziren bazkaltzera.

Astebetuz Malagara joateko aukera

Gure Pakea Elkarteak Malaga eta inguruak ezagutzeko bidaia antolatu du ekainaren 4tik 12ra. Ekainaren 4an abiatuko dira autobusez, goizeko 08:00etan Kale Nagusiko bus geltokitik. Bidaiaren prezioa, 500 eurokoa da. Banakako gehigarria, 186 euro. Izen ematea zabaldu dute jada, apirilaren 29ra arte. Informazio gehiago eta eskuorriak, Gure Pakea Elkarteak Artzabalren duen bulegoan. Ohartarazi dutenez, "oraingoz 54 laguntzako tokia dago".

■ Ekainaren 4tik 12ra.

■ Prezioa: 500 euro. Banakako gehigarria: 186 euro.

■ Izen-ematea: apirilaren 29ra arte.

■ Informazio gehiago: Gure Pakea Elkartearen bulegoan.

Landaberriren

50. urtemugarako

lelo eta logo bila

Batzorde bat ospakizunak antolatzeko lanean da. Otsailaren 25erako bilera irekia deitu zuten ekarpenak jasotzeko. Gogoan izan, proposamenak landaberri50@gmail.com helbidera ere helarazi ditzakezuela.

Batzordeak orain, lelo eta logo bana aukeratu nahi ditu, Lasarte-Oria eta Usurbilgo herritarren laguntzaz. Martxoaren 16a baino lehen, marrazki, irudi eta testuak bidali. Lehen aipaturiko helbidera, eta bestela ikastetxean utzi.

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

ARRANDEGIA PELLO
PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

Otar-Goxo
Elkagaiak
Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

Santixabelak, ekainaren 30etik uztailaren 3ra

Martxan dira herriko festetako prestaketa lanak. Jai Batzordeak otsailaren 22an egindako lehen bileran, Santixabelak ekainaren 30etik uztailaren 3ra ospatzea adostu zuen.

Jendetsua izan zen bilkura, 22-24 lagun gerturatu ziren. Egun horiek zehaztu ziren baina, ohi bezala, ekainaren 30a baino lehen izango da ekitaldirik.



Egunak zehaztu dira. Ondorengo bileretan egunez eguneko egitaraua finkatzen hasiko dira. Argazkian, iazko oilasko biltzaileak.

Hurrengo bilera, martxoaren 14an

Jai Batzordea, martxoaren 14an bilduko da berriz, 18:00etan Potxoenean. "Bilera

hori baino lehenago, taldeek aurrekontuak aurkeztu behar dituzte. Garrantzitsuak dira hasierako bilera hauek, ekin-

tza bakoitzari tokia (bai fisikoa eta bai ekonomikoa) orain egiten zaiolako", ohartarazi dute Jai Batzordetik.

Errigorako olio bidaien banaketa

Harrera bikaina izan du Nafarroa hegoaldean ekoiztako oliba olio bidaiak eskuragarri jarri dizkigun Errigoraren elkartean kanpainak. NOAUA! K.E.-tik, Udarregi Ikastolatik eta Etumeta-AEK euskaltegitik bideratu den ekimena arrakastatsua suertatu da. Errigoratik adierazi digutenez, martxoaren 10ean jasoko ditugu olio bidaiak. Martxoaren 2a baino lehen, eskaera egin duzuenok, martxoaren 11n, 14ean eta 15ean etor zaitezke bidaiak jasotzera; NOAUA!ko egoitzara. NOAUA!-ko egoitzan bakarrik



Martxoaren 11n, 14an eta 15ean pasa zaitezke NOAUA!tik bidaiak jasotzera.

eskuratu ahalko dituzue. 5 litroko bidaiak jasotzerakoan egin beharko dira ordainketak. Gogoan izan prezioak: 32 euro

balio du oliba olio birjina estra ekologikodun bidai bakoitzak; 22,50 euro, oliba olio birjina estra konbentzionaldun bidaiak.

Bi usurbildar, EH-ko Mus Txapelketako finalean

Heldu da Euskal Herriko 8. Mus Txapelketako final handia. Larunbat honetan jokatu da Zuberoako Ur-diñarben. Zazpi herrialdeetako finaletan sailkaturiko mus jokalaririk onenak batuko dituen hitzorduan bikote usurbildar bat ere izango da lehian: Aitor Makazaga Beristain eta Juantxo Iraola Otaño. Zorte on!

Martxoaren 24an, Usurbil-Arantzazu ibilaldia

Tradizio luzeari segida eman nahi diote aurten ere; herritar talde batek, Usurbil-Arantzazu arteko bidea oinez egiteko deialdia egin du, martxoaren 24rako. Goizeko 05:00etan abiatuko dira Mikel Laboa plazatik, iluntzeko 19:00ak alderako Arantzazun egotea aurreikusten dute. Tartean, Zelatun, Santa Ageda, Mandubia, Santa Marina edota Legazpia zeharkatuko dituzte. Guneotako batzuetan haiketako egin edota bazkaltzeko tartea izango da. Askaria berriz helmugan, Arantzazun dastatuko dute. Itzulera autobusez egingo da. Autobus zerbitzua, haiketako, bazkaria eta askariaren prezioa, guztira 50 euro. Antolatzaileek txangoan parte hartzera animatzen dituzte mendizaleak.

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Josue
Igeltseritza

606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Pagazpek lau final jokatuko ditu asteburu honetan

Euskal Herriko Ligako finalak asteburu honetan jokatuko dira. Eta hiru finaletan Pagazpeko ordezkariak arituko dira. Trinketeko Gipuzkoako Txapelketa ere jokatuko da igande honetan, eta Pagazpeko bikote bat arituko da finalean.

Martxoak 4 ostirala

Areta-Laudion, 19:00etan

Jubenilak eskuz binaka:

Pagazpeko ordezkariak: Hodei Exposito-Aitor Aranguren

Nagusiak ohorezko maila, eskuz binaka:

Pagazpeko ordezkariak: Xabier Santxo-Aitor Gorrotxategi

Martxoak 6 igandea

Mungian, 11:30ean

Nagusiak eskuz banaka:

Pagazpeko ordezkaria: Ander Quina.



Aitor Gorrotxategi-Xabier Santxo, Hodei Exposito-Aitor Aranguren eta Ander Quina (azpiko irudian).

Trinkete Gipuzkoako txapelketa

Martxoak 5 larunbata

Iruran, 19:00ean

Pagazpe-Urnieta.

Pagazpeko ordezkariak: Enrike Huizi-Mikel Landa



Eskubaloia

Kiroldegian

Martxoak 5, larunbata

■ 09:30 Alebin mutilak, Buruntzaldea: Udarregi 5C-Udarregi 5B.

■ 09:30 Alebin mutilak, Buruntzaldea: Udarregi 5A-Urnieta 5B.

■ 10:30 Alebin mutilak, Buruntzaldea: Udarregi 6B-Udarregi 6C.

■ 11:30 Infantil neskak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi A Usurbil-Bera Bera Bi.

■ 12:45 Infantil mutilak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi A Usurbil-Murgil Elgoibar.

■ 14:15 Jubenil mutilak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Tekniker Eibar Eskubaloia.

■ 15:45 Kadete neskak, Gipuzkoako Txapelketa: Usurbil K.E. "B"-Aiala B ZKE.

■ 17:30 Kadete mutilak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-C.D. Bidasoa Irun.

■ 19:30 Senior mutilak, 1. Nazionala: Ucin Aluminio Usurbil-Quiron Askartza.

Martxoak 6, igandea

09:00 Alebin mutilak, Errendimendua, Gipuzkoako Txapelketa: prestakuntza saioa.

09:15 Aitana Davilak Gipuzkoako Selekzioaren entrenamendua, Donostiako La Sallen.

10:00 Alebin neskak, Errendimendua, Gipuzkoako Txapelketa: prestakuntza saioa.

11:00 Kadete mutilak, Gipuzkoako Selekzioa: prestakuntza saioa.

Andatzakoekin Hondarribia-Pasai Donibane bidea osatzeko aukera, martxoaren 13an

Andatza Mendizaleen Kirol Taldeak antolatu du irteera, eta mendizale orori irekita dago proposamena. Martxoaren 13an osatuko dute Hondarribia eta Pasai Donibane arteko ibilbidea. Hori bai, izena aldeztatik eman behar da.

"Hendaiara heltzen den Lapurdiko itsasertzeko bidearen lekukoa jasoz, Talaia bidea Hondarribian abiatzen da Gipuzkoako kostaldea Saturraraineraino korritzeko asmoz. Honakoa lehenengo etapa da: Hondarribia-Pasai Donibane. Bi



Argazkian, Talaia bidea. Usurbildik Hondarribiara autobusez joango dira, eta 22 kilometroko bidea osatuko dute.

herri hauek lotzen dituen 22 kilometro inguruko ibilbidea da", aditzera eman dutenez.

■ Eguna: martxoak 13, igandea.

■ Abiatzeko hitzordua: 07:00etan, Oiardo Kiroldegitik.

■ Joan etorria: autobusez.

■ Ibilbidea: 23 kilometro.

■ Izen ematea: 8 euro, martxoaren 10a baino lehen.

Rural Kutxa: 3008 0259 1630 0543 0321

Kutxabank: 2095 5069 0710 6848 9805

■ Andatza M.K.T-k antolatzen dituen irteeretan parte hartzeko derrigorrezkoa da, mendiko federatua izatea eta aseguru txartela indarrean edukitzea. Federatu gabe dagoenari tramitea egingo zaio, hala nahi badu.

■ Informazio gehiago: andatzamendizale.info

■ Antolatzailea: Andatza M.K.T.

ETXEBIZITZA

Salgai

Pisua salgai Kaxkoan. 2 logela, egongela, sukalde, komuna eta trastelekua. Hiru balkoi eta dena kanpoaldera. Altzariek. 670 070 562.

Pisua salgai Munalurran, gutziz berritua, 60 metro, 140.000 euro. TI: 636393237

Etxebizitza salgai Santuenea 21ean. 69 m². Sukalde jangela, komuna, egongela eta bi logela. Hiriko gasa. Eguzkitsua. Dena kanpoaldea. Prezioa 150.000 euro. Ramón 615149900.

Pisua salgai Santuenean. 2 logela, egongela, sukalde, komuna, aluminiozko leihoak, berogailua etxe guztian eta hiriko gasa. 15 metro koadroko baju bat ere bai. 95.000 euro. 659 460 979

Askatasuna plaza aldera ematen duen etxebizitza eta garaje marra salgai Kaxkoan. 3. solairua. 80 metro koadro, 3 logela, 2 komun, sukalde, jantokia, egongela eta 24 metro koadro trasteroa. 269.000. 943 916 834.

Pisu bat salgai. 90 metro karratu. 3 logela, 2 bainugela, jan-egongela eta sukalde jantokia aparte duela. 605 707 642.

Atikoa Zubietan, 110m² erabilgari. 2008an gutziz berritua, teilatuaren estruktura ere. 3 logela handi, 2 komun, 30 m²-ko egongela. Haize egokitua. 225.000. 669781959 Julien

2 gela, komuna, sukalde eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukalde. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Etxea salgai (Kutxa gainean). 3 logela, egongela, sukalde, komuna, trastelekua. Dena kanpoaldera. 607 572 106

Etxebizitza eta garaje marra salgai Munalurran. 4. pisua. 2 gela, egongela, komuna eta sukalde. 163.000 euro. Tel. 646 663 405.

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaigan. Trenbide-pasagunearen ondoan.

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

56m². Pisu baxua. Berritua: Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Pisua salgai edo alokairuan Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Iñaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukalde egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxia. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitxi dugu; orain, 36 milioi pezetatan

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobea. Merkea, 678 581 991.

Alokairuan

Pisua alokairuan, 550 euro. Munalurran, berritua. 2 gela, bikote batentzat aparta. Apirilean sartzeko. Abalarekin. 636393237

Pisua alokatzen da Kaxkoan. 2 logela, egongela, sukalde, komuna eta trastelekua. Hiru balkoi eta dena kanpoaldera. Altzariek. 670 070 562.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logeekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

Pisu bat alokairuan Puntapax-en. 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Duplex modukoa, oso oso berezi jarrita. 627 496 740. Carlos.

Pisu bat alokairuan Artzabalen. Beheto solairuan, terrazarekin eta oso egoera onean. Tel. 655 708 276.

Pisu baten bila nabil, altzariek eta gehienez 550 euro. 661 378 340.

Alokairuko pisu baten bila nabil.

Tel: 620 708 265 / 686 143 7866.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

Logela bat alokatzen dut. Pertsona 1 edo 2rentzat. Prezio ona. 657 535 299.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin. 664885737.

Pisu baten bila nabil, txikia eta merkea. Txakurra daukat. 682 214 506.

Emakume bat gela baten bila dabil partekatzeko 17:30-18:30 deitu (Marisol). 674463942

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Kale Nagusian, garaje itxi handi bat alokatzen da. 943 361 235.

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Argitsuak. 671 547 567.

Baju komertzial bat salgai Erdiko kalean. 62 metro koadro, solairu batekin. 600 369 013 / 943 371 827

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Errekatxiki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan 671547567

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Garaje itxi bila nabil. Motorra uzteko izango litzateke. 645720571

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro koadokoak Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo

alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Mutil gazte bat eskaintzen da, ingelesa, frantsesa, latina, filozofia emateko. Merkea. 600 766 068. Jokin

Neska bat lan bila dabil. Orduko edo interna moduan. Pertsona helduak edo umeak zaintzen eta garbiketan. Esperientzia eta erreferentziarekin. (Dokumentazioa egunean). Berehala lanean hasiko nintzateke. Tel. 632 797 416.

Senar-emazte gazte bat, lan bila dabil, baserri batean. Interno moduan edo orduka. Esperientzia handia eta erreferentziarekin. Tel. 631 916 262 / 631 882 360.

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen edo beste lan batzuk egiteko. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. Tel. 631 916 262.

Lan bila nabil Usurbilen. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. Tel. 631 882 360. Esperientzia zabal duen emakumea eskaintzen da haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660 041 361

Lan bila nabil. Portalak edo etxeak garbitzen, umeak zaintzen... Tel. 688 889 214.

Neska bat eskaintzen da etxea zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko orduka. Disponibilitatea 9:00etatik 15:00tara. 629 110 310.

Erizain laguntzaile nazionala eskaintzen da. Tituluekin eta esperientziarekin edozein lanetan. Batez ere pertsona helduak zaintzen. Tel. 622 925 562.

Emakume euskalduna eskaintzen da, ume txikiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko, goizez edo arratsalde, abendutik aurrera. Oso arduratsua. 671 547 567.

Saltzaile edo administratzaile moduan, lan egingo lukeen 31 urteko emakume bat naiz. Tel. 675 703 163. Berta.

Emakume bat eskaintzen da, goizez, 2 edo 3 orduz etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 620 625 823.

Emakume bat eskaintzen da asteburutan pertsona helduak zaintzeko. Tel. 646 756 555.

Neska gazte euskaldun bat haurrak arratsaldetan zaintzeko prest eskaintzen da. Esperientziaduna haurrak zaintzen eta udalekuekin. Tel. 661 626 500. (Maialen)

Mutil gazte bat LH eta DBH-ko ikasleei klase partikularrak emateko eskaintzen da. Tel. 617 916 242. (Oinatz)

Lan bila nabil. Edozein lan egingo nuke. Interna moduan ere bai. Umeak edo helduak zaintzen, garbiketa lanak egiten, jatetxeren batean harraskako garbiketarako egiten, etab. Tel. 676 188 411

Pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke asteburutan. Esperientziarekin. 657 708 895.

Pertsona bat eskaintzen da propaganda edo gutunak banatzeko. Tel. 943 364 527.

Mutil bat eskaintzen da, helduak zaintzeko, baserriko lanetan ari-tzeko edota edozein lanetarako. Interno moduan lan egiteko prest. Tel. 662 286 266.

Lan bila nabil. Interna moduan eta umeak zaintzen. Tel. 645 530 490

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketan. Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak ditut. Esperientzia biltegiko lanetan eta banaketan. 657 535 299.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziarekin. 627 487 592.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziarekin. 631 321 981.

Erizain laguntzaile tituluduna eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Bertakoa eta euskaraz dakiena. Tel. 622 925 562.

Nikaraguakoa eta 28 urteko mutila, pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. Interno moduan edo nahi den bezala. Badaki etxeko lanak egiten. 687 348 223.

Pertsona helduak zaintzen esperientzia asko duen mutil bat, lan bila dabil. Gauetan, orduka edo asteburutan. Tel. 648 761

874.

Gauean laguntzaile moduan, orduka edo asteburutan lan egiteko neska bat eskaintzen da. Paperekin eta esperientzia askorekin. Gomendio askorekin. 638 602 597.

Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko. 695 602 828.

Arratsaldetan pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 30 urteko esperientzia. 682 214 506.

Lan bila nabil. Garbiketan, plan-txatze eta interna moduan ere bai. Larunbat, igande eta jai egunetan ere prest nago. 676 188 411.

Arratsaldetan lan egiteko prest nago. Pertsona helduak gauean zaintzeko ere bai. 943 045 428.

Erizain laguntzaile bat eskaintzen da esperientziarekin. Pertsona heldu ezinduko edo amaieran dauden pazienteak zaintzeko. Etxean zein egoitzetan. 943 365 079 / 635 715 142.

Neska bat eskaintzen da garbiketa egiteko, pertsona helduak zaintzeko... Esperientzia, erreferentzia eta papela. 618 889 530.

Lan bila nabil. Orduka, umeak edo helduak zaintzen, etxeko lanak egiten... Interna moduan ere bai. Erreferentziak. 656 186 617.

Lan egingo nuke. Garbiketan... orduka. Gauean pertsona helduekin lo egiteko edo zaintzeko edo konpainia egiteko prest nago. Tel. 676 188 411.

Emakume euskalduna adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest. Klinika laguntzaile tituluarekin 688826968.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen prest. Interna bezela ere. Edozein ordutegi. 608299579

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientziarekin. 722 575 781.

Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientzia eta papela. 690146067.

Mutil bat lan bila dabil helduak zaintzeko edo baserrian lan egiteko. 690146067.

Interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen. Esperientzia daukat. Ezagutzan, sukaldaritzan, garbiketan... 604148284.

Lan bila nabil. Esperientzia sukalde laguntzaile bezela, zerbitzari bezala, garbiketan, karga eta deskargan, frutadendan... 663 447747.

Lan bila nabil, orduka edo interna moduan. Garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko. 631 277 061

Gidabaimen guztiak ditut, baita garabi eta orgatilara ere. Lan prebentzioko ikastaroa daukat. Esperientzia altua. 657 535 299.

Lan bila nabil. Interna moduan nahiago. Esperientziarekin, eta

papelak egunean. 680 804 124.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Xiomara. 631 193 521.

Emakume euskalduna gertu interna joateko moduan. Klinika laguntzaile tituluarekin. Tel. 688 826 968. Deitu: 17:00 - 19:00, eta larunbata 15:00 - 19:00.

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 631 333 251

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 653 620 770

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 672 740 521

Pertsona helduak zaintzeko, interno eta orduka. Gauak etxean

edo hospitalean pasatzeko. Esperientziarekin. 648 761 874.

Paperak ongi dituen neska bat lan bila dabil, etxeko lanak egiteko, orduka. Esperientzia handia. Erreferentziarekin. 638 602 597.

Neska euskaldun batek lan egingo luke arratsaldetan, 4 ordu, helduak zaintzen. 626 735 354.

Emakume bat lan bila dabil etxe batean bere seme-alaba gazteekin bizitzeko. Lasarte edo Usurbilen. 689 344 946.

BESTELAKOAK

Kalexarren, azpiko kaleko gara-jeetan, katu txuri, marroia eta urre kolorekoa desagertu zaigu. 2015eko irailean jaioa. Norbaitek aurkitzen badu deitu: 943 371 220

Oraindik garantian dagoen sukaldeko indukzio plaka bat salgai. Tel. 645 701 879.

Emakumezkoen bizikleta bat erosiko litzateke neska batentzako. Tel. 636 051 625. Leticia.

Egurarekin sua egiteko ekonomika berria daukagu salgai. 637974994

Borda baten bila gabiltza Usurbil inguruan. Gehienez 10.000 metro koadroko terrenoarekin. Telefono zenbakia: 608 703 669

Ligorretako babarruna salgai. 10 eurotan kiloa. 657 714 355

Ume txaketa bat galdu da (marroia) Askatasuna plaza-Atxegalde bitartean 943110954

8-10 urteko haur baten tamainakoa den sudadera gorri bat galdu dugu. Letra grabatu beltzak ditu. 676 82 33 11

Babarrun beltza eta babarrun motz zuria salgai. Usurbilgo erriberan eta botikarrik gabe ekoiztutakoa. 65 777 01 31 (WhatsApp).

Memoria txartela galdu da argazki kameraren, aurkitu baduzu eraman NOAAra mesedez.

Bi "artzi txakur" oparitzen ditut. Bata lau urtekoa, etxea zaintzeko eta bere kumea, hiru hilabete eta erdikoa. 660 093 071.

Bosch markako garbigailu bat salgai. Urte bete pasatxo dauka. Berri berria dago. Tel. 943 363 201.

Haur-sila bat salgai. "Bebe confort" marka LA modeloa. Beltza eta berri-berria dago. Burbuja eta eguzkitakoarekin. 666 373 665.

Hiru plazako eta bi plazako sofak salgai, larruzkoak, egurrezko zertekin. Egoera onean, 500 euro negoziagarri. usurbil72@hotmail.es

Hemengo urra erosiko nuke. Deitu 634 409 888.

Denborarik ez baduzu zure maskota paseatzeko, nik lagunduko dizut. Ordubeteko ibilbideak. Asteburutan. Telefonoa: 688 888 176. Pablo.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta.....	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Guipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salvatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 03	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte
Ostirala 04	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte
Larunbata 05	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte
Igandea 06	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte
Astelehena 07	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Astearte 08	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte
Asteazkena 09	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Martxoak 03 - martxoak 13

Osteguna 10	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Ostirala 11	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Larunbata 12	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Igandea 13	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

<https://www.cofgipuzkoa.com/>

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
URRUTIA YURREBASO, MAITANE
Etxeberri auzoa 1. Florida auzoa, Hernani
943 55 77 38 22:00 - 09:00

Agenda martxo

04 ostirala

- Gure Esku Dagoren mahaia 19:00etan Sutegi parean.
- "Zinegoak" laburmetraia proiektzioa. 19:00etan Sutegiko auditorioan.
- EuskOrleans Dixie Band 20:00etan kalejiran.

05 larunbata

- 'Sagarrondotik sagardora' ikastaroa Josu Osarekin. 9:00-13:00 Potxoenean.
- Gazte mugimenduaren asanblada irekia 09:30-16:30 Udarregin.
- Orfeo Txiki Abesbatza Salbatoren. 17:00.

06 igandea

- Lezoko Musika Bandaren bisita: 11:30 Kalejira. 12:30 Emanaldia frontoian.
- "Lotte 2, Ilargiko harriak" haurrentzako filma euskaraz Sutegin. 17:00etan. Sarrera 3 euro, egunean bertan salgai.

Haurrentzako filma euskaraz, igande honetan Sutegin

Usurbilgo Udalak Ziortza Gazte Elkartearekin elkarlanean antolatutako film proiektzioa haurrentzat euskaraz, igande honetan; "Lotte 2, Ilargiko harriak" proiektatuko dute martxoaren 6an, arratsaldeko 17:00etan hasita, Sutegiko auditorioan. Sarrerak, egunean bertan salgai Sutegin, 3 eurotan.

"Bizi ezazu Lotte eta bere osaba Klausekin abentura berri dibertigarri hau: Lotte eta harri bitxiak sekretua. Klaus, Fred eta Vilek hiru harri hartu zituzten tenplu sekretu batetik. Baina ez zekiten harri hauek ilargiko untxiak etxera itzultzeko bide bakarra zirela. Tik eta Rhiv, Klaus eta harrien bila doazen bitartean, Lotte eta osabak ha-



17:00etan hasiko da proiektzioa. Sarrera 3 euro, egunean bertan Sutegin salgai.

rien sekretua jakin nahi dute. Abentura izugarriak biziko dituzte, ilargiko untxiak eta Paul katua segika hasten zaizkienean adibidez, katuak ere interes handia baitu harri misteriosuetan", dio filmaren sinopsiak.

Ostegun honetan, bertso-afaria Artzabalen

Matrakak eta Usurbilgo Talde Feministak deituta, martxoaren 3an osteguna, 20:30etik aurrera Artzabalen.

- Parte hartuko duten bertsolariak: Eli Pagola, Oihana Iguaran eta Onintza Enbeita. Gai jartzailea: Idoia Torregarai. Txartelak Artzabalen salgai. 15 euro, gehi euro bat (zozketa erotikorako).

Tolosako Udal Musika Eskolako kontzertua

Tolosako Eduardo Mokoroa Udal Musika Eskolako ikasleak Usurbilera etorriko dira ostegun honetan bisitan. Soinurbil Musika Astearen baitan, kontzertua eskainiko dute ostegun honetan, martxoak 3, 18:30etik aurrera Sutegin. Maiatzean, Zumarte Musika Eskolako ikasleak joango dira Tolosara.

Datozenak

Odol ematea

Usurbilgo Odol Emaileen Elkartek deituta, martxoaren 7an astelehena, 18:00-20:30 artean anbulatorioan.

Ictusari buruzko hitzaldia Artzabalen

"Ictus: prebentzioa, detekzioa, jokabidea eta ondorioak" hitzaldia antolatuko du DYA Gipuzkoak martxoaren 7rako, astelehenez, 17:00-18:00 artean, Artzabalgo ekitaldi aretoan.

Martxoaren 11n "Borondateen Kriseiluak" ekitaldia Udarregi parean

"Ilunabarrean elkartuta, desio bana eskatu, kriseiluan idatzi, eta zerura jaurtitzeko deia luzatzen dizuegu herritarro", martxoaren 11n, iluntzeko 19:30etan Udarregi Ikastola pareko zelaian.

Martxoak 4, ostirala

19:00etatik aurrera Sutegi parean: Gure Esku Dagoren mahaia, bazkietza egiteko eta kriseiluak erosteko aukera (baita Lizardin ere).

Martxoak 11, ostirala

19:30 "Borondateen kriseiluak" ekitaldia, Udarregi Ikastola pareko zelaian.

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak....

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax. 943300045

Inaki Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

info@inakiturgintza.com • www.inakiturgintza.com
600 024 825

ELORZA
OBRAK ETA
ERREFORMAK S.L.

661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com



USURBIL
OPTIKA

Ertzumeneko aparatuak • Igerilekuko tapoiak neurria eginda
BEHERAPENAK eguzkitako betaurrekotan

Zubiaurrenea, 10 • ☎ 943 370 269 • 675 708 654

2x1

PROGRESIBOETAN



OSASUN
GIDA



Ibaiondo

Fisioterapia
Osteopatia
Errehabilitazioa
Masajeak

Ola Kalea, 12 - behea, ezk. LASARTE - ORIA Tel / Faxe: 943 370 306

Kima

MASAJE LEKUA

-Kirol eta terapeutiko masajeak

☎ 943 366 197 Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA

BERRIA!
Txirrindulariaren
azterketa
biomekaniko
eta osteopatikoa

Öinutsik

podologia zentroa

943 11 09 54 zubiaurrenea 2, Usurbil



✓ Azterketa biomekanikoa ✓ Plantilak
✓ Papilomak ✓ Firrelexoterapia
✓ Kolagenozko infiltrazioa ✓ Kiropodiak



Iturraldebotika
Tomas Iturralde botika
IGB/12 PEZ

Dosifikazio Sistema Pertsonalizatua

Dermofarmazia

Produktu homeopatikoa

Maisu formulak



Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95 www.iturraldebotika.com

OSASUN
GIDA

LOGOPEDIA

Haurrak / Nerabeak / Helduak
TERAPIA MIOFUNZIONALA



- Arnasketa arazoak, disglosia, degluzioa
- Ahoaren tratamenduak: disfemiak, disfonia funtzionala sinple eta konplexua...
- Hizkuntza eta ulermenaren zailtasunak: dislexia, disortografia, diskalkulia, TDA-H, disortriak...

Aurreko hitzordua: 635 701 374

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL



MARTXOAN

10 ETA 20€KO BONIFIKAZIOAK!



MARTXOAN 10 ETA 20€KO BONIFIKAZIOAK BANATUKO DITU HURBILAGOK

ORDAINKETA HURBILAGO TXARTELEAN EGINGO ZAIO SARITUARI

